

## **LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2016 / 2017 ikasturtea**

**INTERNET eta IKT-en ERABILERA, ARAUDIA ETA ARRISKUEN  
PERTZEPZIOA LEHEN HEZKUNTZAN: IKASTOLA BATEN  
KASU AZTERKETA**

**Egilea: Jon Altuna Urdin**

**Zuzendaria: Zuriñe Gaintza Jauregi**

**Leioan, 2017ko irailaren 2an**



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

EGILEAREN

Gradu Amalerako Lana  
ONIRITZIA

## AURKIBIDEA

<b>Sarrera eta justifikazioa .....</b>	<b>5</b>
<b>1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala .....</b>	<b>6</b>
1.1. IKTen aurrekariak eta gaztetxoek gizarteratzea, komunikazioa eta hezkuntza mundu digitalean.....	6
1.2. Adingabekoen IKT eta interneten erabilera: aplikazioen araudia eta legedia ...	7
1.3. Lege, arau eta aholkuak ez betetzearen arriskuak eta adingabekoen heziketa .....	8
1.4. Eskolaren ardura, gaitasun digitala eta IKTak lehen hezkuntzan.....	9
<b>2. Lan ikerketaren galderak eta helburuak .....</b>	<b>9</b>
<b>3. Kasuaren testuingurua eta Metodologia .....</b>	<b>10</b>
3.1. Ikerketa kasuaren testuingurua .....	10
3.2. Ikerketa kasuaren metodologia .....	12
<b>4. Lanaren garapena .....</b>	<b>14</b>
4.1. Kasu azterketaren lagina eta partaideak.....	14
4.2. Datu jasoketa eta datu azterketa edo analisisa.....	14
<b>5. Emaitzak .....</b>	<b>15</b>
5.1. Interneteko kontu pertsonalak eta komunikatzeko zerbitzua.....	16
5.2. IKT-en erabilera etxean eta ikastolan.....	17
5.3. Adingabekoak eta interneteko erabilera: jokabideak eta arriskuaren pertzepzioa...	18
5.4. Arau hausteak eta baimenak.....	20
5.5. Interneteko eta norberako Pribatutasuna.....	21
5.6. Ikasleen komunikatzeko moduak Interneteko zerbitzuetan eta hauen arriskuak.....	23
5.7. Publikatzeko eta informazioa igotzeko baimenak eta hauen arriskuaren pertzepzioa..	24
<b>6. Ondorioak eta eztabaida .....</b>	<b>25</b>
6.1. Ondorio orokorra.....	26
6.2. Ondorio zehatzak.....	26
<b>7. Lan ikerketaren mugak.....</b>	<b>28</b>
<b>8. Eskerrak .....</b>	<b>29</b>
<b>9. Erreferentzia bibliografikoak.....</b>	<b>29</b>
<b>10. Eranskinak .....</b>	<b>33</b>
I. Eranskina. Galdera-sorta.....	34
II. Eranskina. Eztabaida taldea (Focus group).....	37
III. Eranskina. Baimen informatua.....	39

# **INTERNET eta IKT en ERABILERA, ARAUDIA ETA ARRISKUEN PERTZEPZIOA LEHEN HEZKUNTZAN: IKASTOLA BATEN KASU AZTERKETA**

**Jon Altuna Urdin**

UPV/EHU

## **Laburpena**

Ikerketa lan honetan ikastola baten irakasleria eta 12 urte baino gutxiagoko ikasleen, IKTen eta Interneteko zerbitzuen erabilpena eta hauen arriskuen pertzepzioa aztertzen da. Hortaz, irakasle eta ikasleen IKTen erabilera eta arau haustearen iritzia ikertu eta noraino arauak jarraitzen eta ezagutzen dituzten aurkezten da. Giza sareetan eta plataforma digitaletan dauden araudiak betetzen dituzten edo ez jakiteko, kasu azterketa metodoa erabili da. Emaitzetan ikasle eta irakasleen erabilera eta arrisku larritasunaren pertzepzioa guztiz ezberdina dela ikusten da. Ondorioetan, eskolak IKT hauen inguruan hezteko dituen zailtasunak eta mugak aurkezten dira non IKTen erabilera etxean eta ikastolan guztiz desberdina da eta arriskuen pertzepzioan ikasle eta irakasleen arteko aldea nabarmena da. Gainera ikasle batzuk arauak ez dituztela batere betetzen ondorioztatzen da, batez ere, ikastetxetik kanpo.

*Hitz gakoak: Lehen Hezkuntza, IKT, arauak, arriskuak, heziketa*

## **Abstract**

This work analyzes the circumstances of how teachers and children under 12 years old are using digital media tools and Internet services and how is the risk perception in a primary school. Therefore, it has explored if teachers and children do not comply with the terms of services that they use. Consequently, this circumstance is going to be analyzed by case study research to reveal if there is an important lack of compliance with the rules when children use digital platforms and Internet social networks. The results show how different use and perception of the risk have children and their teachers. In the conclusions it is explained the struggles and limitations of school to teach about ICTs which the use at home and in the school is totally different and there is a big gap between teachers and students' perception of the risk. Moreover, there are some students who do not comply the rules at all, particularly, out of school.

*Key words: Primary school, ICT, laws, risks, Education*

## **Resumen**

En este trabajo de investigación se analiza el uso que el profesorado y el alumnado menor de 12 años hace de las TIC y de internet, así como la percepción del riesgo de estas tecnologías en un centro de primaria. Por tanto, se incide en el uso y percepción del incumplimiento de las normas del profesorado y de los estudiantes, analizando hasta qué punto siguen las cumplen. Para ello se realiza una investigación con estudio de casos tanto para ver si cumplen con las normas de los servicios de internet, como de las redes sociales y las plataformas digitales. Los resultados muestran que las percepciones de los riesgos entre profesorado y alumnado son totalmente diferentes. En las conclusiones, se exponen las dificultades que la escuela tiene para educar con las TIC, puesto que son diferentes las que usan en la escuela y en casa y donde la distancia en la percepción del riesgo de las mismas entre el profesorado y el alumnado es muy grande. Además, algunos estudiantes no cumplen ninguna de estas normas, especialmente, fuera de la escuela.

*Palabras clave: Primaria, TIC, normas, riesgos, Educación*

## Sarrera

Azken hamarkadetan, hezkuntza, teknologia eta gizarteak izan duen bilakaera nabarmena izan da. Bilakaera honetan, hainbat aldagaiak izan dute eragin zuzena: emakumearen lan-munduratzeara, hezkuntza derrigortasunaren adinaren igoera eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) agerpenak, besteak beste (Viñao, 1997). Aipaturiko azken honek, IKT-ak hain zuzen, irakaskuntzan, hezkuntzan eta gizartean onurak eta galerak ekarri ditu (Gómez, 2015), bai famili, ikastetxe, enpresa eta estatuko erakundeek egoera berriei egokitzeko eta eguneratzeko ardura hartuz (Prensky, 2010), bestela gizartetik kanpo edo arazo gehiago izateko arriskuan egongo dira (Guerrero, 2015).

Aldaketa hauen aurrean, hezkuntza eragileek eta irakasleok, eguneratu eta praktikatik ikasten jarraitu behar dugula uste dut egoera eta arazo berriak etengabe agertzen eta suertzen direlako. Honen adibide, nire practicum-ean bizi nuen, non ikasle batek sare sozial batean pairatutako eraso eta bere familiaren kezka eta eskolak eman dezakeen laguntza bizitzea suertatu zitzaidan. Kasu honetan, 10 urteko neska bati bere Facebook-eko erabiltzaile gakoak lapurtu eta gero, norbait gezurrak argitaratzen hasi zen. Egoera horretan, gurasoak ikastolara gerturatu ziren, zuzendariaren jakinaren gainean jartzeko asmoz, eta egoera horri aurre egiteko laguntza eskatuz. Zuzendariak eta irakasleriak arazoari aurre egin nahian bilerak egin zituzten eta bertan nire parte hartzea eta laguntza eskatu zidaten. Nik baiezkota eman nien eta gai honen inguruan Gradu Amaierako ikerketa lana egitea erabaki nuen.

Hortaz, errealitatean oinarritutako kasu baten aurrean gaude eta testuinguru zehatz batean kokatutako lana izango da, hau da, ikastola batean. Nire lehendabiziko eginkizuna, non, zer eta nola erabiltzen dituzten IKTak eta interneteko aplikazioak aztertzea izango da. Horretarako, kasu azterketa metodologian oinarrituko naiz, sakontasunez bai ikasle bai irakasleen IKT erabileraz, araudiaz eta arriskuen pertzepzioaz jakiteko eta bi susmo aztertzeko. A) Ikasleek ez dutela erabilera egoki bat egiten arauak ezagutzen edo/eta betetzen ez dituztelako. B) Arau haustearen aurrean arriskuaren pertzepzioa baxua dela.

Modu horretan, ikastolan eta ikastolatik kanpo hezkuntza eragile ezberdinen erabileraren inguruan, behaketa, inkesta eta talde eztabaiden bidez hainbat galdera egingo zaizkie. Datu guzti horiek antolatu eta kategori ezberdinetan kokatuz, testuinguru horren emaitzak aztertu

eta IKTen erabileraren eta arriskuen pertzepzioaren argazki bat aurkeztea espero da. Hau behin lortuta, hortik ondorio batzuetara iristea eta topatu diren ahuleziak, egoera edo arazo ezberdinen hausnarketa egitea eta eztabaidatzea errazagoa izango da.

## **1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala**

### ***1.1. IKTen aurrekariak eta gaztetxoek gizarteratzea, komunikazioa eta hezkuntza mundu digitalean***

Lan honetan aztertzen den gaia ez da egoera edo arazo isolatu bat, dagoeneko jakin badakigu, IKTak eta Interneteko sare eta aplikazioak edonon eskura ditugula eta hurrek erabiltzen dituztela, bai etxeetan, eskoletan, gazte-lekuetan eta tresna anitzetan (Livingstone, Mascheroni eta Staksrud, 2017). Adibidez, sakelako mugikorretan, eta eramangarriak diren beste tresna eta tabletetan. Honen ondorioz, aldaketa izugarriak ematen ari dira haurrak komunikatzen diren moduetan eta informazioaren trataeran. Beraien guraso edo helduekin alderatuz aldea nabarmena dela hainbat ikerlarien hitzetan jaso dezakegu. Kasurako, Ling (2004), Ito, Okabe eta Matsuda (2006), Baron (2008), Buckingham (2007), Livingstone (2008, 2009) edo Ito et al., (2009), datu eta adierazle ezberdinetan oinarrituz, honen berme ematen ari dira gaztetxoek komunikatzeko eta informatzeko ohitura eta praktika berri hauen inguruan.

Ondorioz, gaztetxoek artean gizarteratze eta komunikatzeko moduak guztiz aldatzen ari direla ikusita, historikoki garrantzi gehien izan duten hezkuntza eta gizarteratze eragileak (familian gurasoak eta eskolan irakasleak), beraien pisua edo indarra galdu nahi ez badute, ezin dira teknologiaren eraginez atzean geratu (Roldán, 2008).

Historikoki gizarteratze prozesua, erlazioerako, komunikazioerako eta hezkuntzarako, familia (gurasoekin) lehen postuan eta eskola bigarrenaren eragile nagusiak izan dira (Roldán, 2008). Aurreko mendeetan, guraso eta irakasleekin batera, garrantzizko beste erakunde batzuek formalki eragin handia ere izan dute, esate baterako, eliza eta estatuak (Rodrigo eta González, 2014). Baina teknologiak eta batez ere internetek, aldaketa batzuk ekarri ditu eta gero eta jende gehiago leku anitzetatik kontaktuan izateko eta informazioa partekatzeko aukerak eman ditu. Konektatuta izateko aukera anitzak eta, komunikazioa gero eta modu

gehiagotan gertatzen ari direnez, zaila da adingabekoak sarean ikusten eta egiten dutena jakitea. Esate baterako, aurreko belaunaldiko gurasoek seme-alaben komunikazioa nahiko kontrolpean zuten, baina gaur egun, komunikazio berriak arrisku batzuekin datoz, bereziki adingabekoentzat (Vera, 2005). Hau da, garai batean gurasoak eta irakasleak komunikazioaren “igorle” nagusiak ziren eta ikasleek edo seme-alabek, “hartzailerean” rola hartzen zuten. Baina komunikazio aukera anitzek, informazioa jasotzeko eta bidaltzeko hainbat gailu eta pertsona izateko aukera ireki dituzte (Papsdorf, 2015). Ondoren, azkenengo belaunaldiko gaztetxoek komunikazio mota berriak eta ohitura desberdinak eskuratu dituzte (Zickuhr, 2014). Gaur egun familia eta eskola eragile nagusiak izanik, badira interneten milaka “igorle” berri (youtuber, instagramer...) eta informazio ugari, non guraso eta irakasleok kontrolatzen ez dutena (Aguilar, Serrano, García eta Alfaya, 2016). Hortaz, gaztetxoek beste hainbat eragile edo erabiltzaile anitzetatik ari dira mezu, informazio eta komunikazioa lortzen (Livingstone, Haddon, Görzig, eta Ólafsson, 2010). Egoera berri honekin guraso eta eskolaren kontrola bertan behera geratzen ari da, bereziki, gurasoek beraien seme-alabek IKTetaz gehiago dakitela pentsatzen dutenean (Padilla, Rodríguez, Álvarez, Torres, Suárez eta Rodrigo, 2015).

Gainera, Facebook, Twitter edo Instagram sareak ez dira eskola gehienetan erabiltzeko aukera izaten ezta irakasten, eta guztiz desberdinak dira eskolako programen erabilera eta etxekoa. Buckingham-ek (2007) ezberdintasun digitala nabaria ematen dela eskola eta eskolatik kanpo aipatzen du. Horrez gain, egoera hau areagotzen ari dela eta hezkuntza sistemetan tartea gero eta handiagoa dela autoreak baieztatzen du (Buckingham, 2007). Orduan, Buckingham-ek aipatutako tartea murrizteko, nork hartu beharko zuen IKT eta sare horien hezkuntzaren ardura? Adibidez, arauak ezagutzeko, jarrera egokiak izateko, pribatutasuna mantentzeko?

### ***1.2. Adingabekoen IKT eta interneten erabilera: aplikazioen araudia eta legedia***

Adingabeko ugari erabiltzen ari dira sare sozialak (Facebook, Instagram) eta interneteko zerbitzuak (Whatsapp), baina gero eta haur gehiago topatzen ditugu aplikazio horietan eskatzen duten adina izan gabe (Lareki, Martínez de Morentin, Altuna eta Amenabar 2017). Orokorrean, 13 edo 14 urte izatea beharrezkoa da edozein aplikazioan edo sarean aritzeko. Estatu Espainolaren legea jarraituz “LOPD” (Ley Orgánica de Protección de Datos

Personales) 14 urte izan behar dira norberaren informazioaren ardura zabaltzeko edo/eta publikatzeko baimena izateko (AGPD 2008). Beraz, 14 urtetik beherako haurrek gurasoen baimena izan behar dute beraien datuak plataforma hauetan emateko.

Baina, zenbat adingabekok ez dira arau eta lege hauek betetzen ari? Gehienek ez dituzte arauak betetzen eta gurasoek eta gainontzeko beste eragileek normatzat hartzen dute sortzen ari den egoera hau ikusita (Aguilar et al., 2016).

Durkheim-ek (1951) anomia kontzeptua erabili zuen arau baten inguruan inork kasurik egiten ez zuenean adierazteko. Etimologikoki “no standard” edo normalizazio falta adierazten du (Mestrovic eta Brown, 1985). Gazteentzako zerbitzu hauetan araua(k) ez betetzea normaltzat hartuko dutenaren beldurra ematen du eta egoera zabalduz gero, anomia digitalaren aurrean izango ginateke (Altuna, Lareki, Martinez de Morentin eta Amenabar, 2015). Honek, arriskuen pertzepzioan eragin zuzena izan dezake, autore ezberdin batzuk aipatzen duten bezala, inongo heziketa ez badago zerbitzu hauek arriskurako eta jarrera desegokirako ibilgailuak dira (Duncan, 2008).

### ***1.3. Lege, arau eta aholkuak ez betetzearen arriskuak eta adingabekoen heziketa***

Gaur egun, badira interneteko hainbat arrisku eta bai guraso bai irakasleak nahiko kezkatu daude. Esate baterako, sexting-arekin (Strassberg, McKinnon, Sustaita, eta Rullo, 2013), cyberbulling kasuekin (Garaigordobil, 2015; Teja, 2014), edo grooming (Whittle, Hamilton, Beech, eta Collings 2013), Cyberstalking (Chandrashekhar, Muktha, eta Anjana 2016), eta phishing-ekin (Harrison, Svetieva, eta Vishwanath, 2016). Arrisku hauetaz gain, kontrol urria eta arauak betetzeko edo jarraipena egiteko nahiko lan dute familiek, eta batzuetan gurasoek ez dute ezagutza handirik edota askotan ez dira gai sentitzen modu eraginkor batean kudeatzeko. Kasu hauetan profesionalen laguntza eskatu beharko zuten (García-Piña 2008).

Egoera hau ikusita, ikastetxetik kanpo gertatzen diren arazo batzuk ikastetxera iristen dira gurasoen ezintasuna dela medio, eta zoritzarrez, gaur egun ez estatuen politikak ez eskolak eta ezta gurasoak, ez dira gai arrisku guzti hauei aurre egiteko (Lareki, Martinez de Morentin, Altuna, eta Amenabar, 2017). Hortaz, ikerlari batzuen ustetan arazo horiei irtenbide bat emateko hezkuntza eragile guztien partaidetza beharrezkoa dela aipatzen dute (Bott eta Spillius, 2014). Baina, prest al daude eskolak, ikastolak eta irakasleria gai honen



inguruan ere ardura hartzeko? Zein neurriraino hezi eta aplikazio hauen hezitzaile bilakatu behar dira ikastetxe eta irakasleak?

#### ***1.4. Eskolaren ardura, gaitasun digitala eta IKTak Lehen hezkuntzan***

Eskoletako ardurari erreparatuz, curriculum-a begiratuz eta araudian zentratuz, LOE legeak (2/2006) zioenez, Lehen hezkuntza amaitzerako, ikasleek hasiak behar zutela IKTen erabileran, eta hauek arduraz erabili behar omen zituzten (Vázquez, 2008). Egungo den LOMCE legean, berriz, IKT-ak ezarri eta indartzea da helburuetako bat. Helburu horri erantzunez, oinarrizko hezkuntzako etaparen amaieran, ikasleek IKTen eta informazio-iturrien erabilera egokirako oinarrizko abileziak garatuak izan behar omen dituzte. Gauzak horrela, gaitasun digitala landu beharreko kompetentzia da eta ez da beti erraza izan erronka horri eustea (Borromeo, 2016). Hainbat autorek (Adu, Arthur, eta Yeboah, 2013; Araujo, 2014; Cabero eta Marín, 2014; Seaman eta Tinti, 2013; Vázquez eta Cabero, 2015) irakasleria IKTen integrazio eta prestakuntzan zailtasunak izan dituztela aipatzen dute, non ikasleek eskolatik kanpo erabiltzen dituzten aplikazioak ez datoz bat ikastetxean lantzen dituztenekin. Esaterako, mugikorra eta sare sozialak (Cabero eta Córdoba, 2009). Hala ere, gaitasun digitalaren gaitasunaren lanketa egiterakoan eta IKTko oinarrizko abileziak garatuak izateko, ez legoke aplikazio, sare sozial eta gainontzeko IKTen arriskuen informazioa eta ezagutza barne izan behar?

## **2. Lan-ikerketaren galderak eta helburuak**

Gaur egungo eskoletan eta eskolatik kanpo 12 urte baino gutxiagoko ikasleak IKTak, sakelako telefonoa eta interneten erabileraren egokiak ez diren hainbat jokabideen eraginez, egoera eta arazo batzuk sortzen ari dira. Hortaz, hauei aurre egin nahian egoera honen azterketa egiteko, galdera, helburu eta hausnarketa batzuk egin nahi dira. Ondorengo galderetan eta helburuetan errealitate honen berri eta hausnarketarako hainbat ideia isladatu nahi dira. Ikerketaren hasierako galderak:

1. Zein da Lehen Hezkuntzako ikasleen eta irakasleen IKTen erabilera?
2. Aplikazioa hauek eskatzen duten arauak eta adina errespetatzen al dituzte ikasleek eskolan eta etxean?

3. Zeintzuk dira IKTen inguruan ekintza desegokien eta arriskuen aurrean ikasle eta irakasleen pertzepzioa?

4. Nork hartzen du IKTen heziketaren ardura?

Helburuei erreparatuz, lan honen helburu nagusia ikastola bateko IKT erabilera eta honen arriskuen pertzepzioa aztertzea da. Hau behin lortuta, errazagoa izango da hasierako galderei erantzutea eta testuinguru baten errealitateaz jabetzea eta hausnartzea.

Helburu zehatzak hauek dira:

1. Lehen Hezkuntzako ikasleen IKTen erabilera ezagutu, bai giza sareetan, bai mezu eta online aplikazioetan. (Kontuan izan behar dugu gurasoen baimenik gabe ezin dutela erabili, LOPD legearen arabera).
2. IKTen erabilera desegokia eta arauak ez jarraitzearen aurrean ikasleen eta irakasleen arriskuen pertzepzioa zein den ikertzea.
3. Arrisku eta arau hausteak non emanten diren eta hezkuntza eragileen ardura zein den identifikatzea.

### **3. Ikerketa kasuaren testuingurua eta metodologia**

#### ***3.1. Ikerketa kasuaren testuingurua***

Aukeratutako Ikastola, Donostiako Añorga auzoko eskola txiki bat da. Guraso batzuen diru-laguntzaz eta elkarlanari esker, 1965ean ikastola sortu zen. Hasieran, ez zen guztiz legala izan “Franco” garaian euskaraz irakastea debekaturik baitzegoen eta proiektu honen helburu nagusia euskaraz irakastea zen. Hala ere, oztopoak oztopo aurrera egin zuten gurasoek eta 1970-71 kurtsoan ikastolaren legalizazioa lortzen da. Baina 1973an ikastolak arazo ekonomiko latzak pairatzen ditu eta kooperatiba bihurtzea adostu zen. Hogei urte beranduago, ikastola publikoa izatea eskatu zuen eta 1996an bere helburua lortzen du ikastola ofiziala eta publikoa izatea onartua izan zelako. Gaur egun, haur hezkuntza eta lehen hezkuntza irakasteko aukera dago, eta publikoa izan arren, ikastolako sustraiak eta gurasoen parte hartzea eta inplikazioa bertan mantentzen dira.

Ikastolaren bilakaera ezagututa, egungo ezaugarrietan murgilduz, ikastolak maila bakoitzeko talde bakarra dago (25 ikasle gutxi gora behera), nahiz eta noiz behinka, 25 ikasle baino gehiago maila berean dituztenean, bi gela edo talde berri bat osatzeko aukera

dago. Tamaina honetako eskolen ezaugarri nagusi bat zera da, hezkuntza eragileen artean (gurasoak, irakasleak eta ikasleak) elkar ezagutzeko eta elkarlanean aritzeko aukerak ematen dituztela, are gehiago ikastola honetan non historikoki gurasoak eskolaren parte garrantzitsua izan dira beti. Hortaz, erabakiak edo arazoak dituztenean gurasoen iritzia kontuan hartzen dira.

Ikasle gehienak Donostian bizi dira: Antigua, Errekalde, Añorga edo Añoga-txiki auzoetan, baina inguru gertuko herrietatik ere etortzen dira, adibidez, Lasarte-Oria edo Usurbiletik. Maila edo klase sozialari dagokionez, erdi-altuko familiak izaten dira ohikoenak.

IKTen inguruan “Eskola 2.0” programaren parte izan dira non 5. eta 6. mailako ikasleek gelan ordenagailu eramangarriak erabiltzeko aukera dute irakaslearen baimen edo agindupean. IKT arduraduna tresneria, sarearen eguneraketa eta aplikazio ezberdinen kudeaketaz arduratzen da. Honek ere, ikastetxeko web orrian berriak eta ekintzak igotzen dira, gurasoak eta ikasleak ikastolan egiten denaren berri emateko.

Horretaz gain, ikastetxeko blogak ere sortu ziren, bai lehen hezkuntzan bai haur hezkuntzan, lan ezberdinen, ekitaldien eta irteeren berri emateko eta informazio interesgarria zabaltzeko. Hemen, ikasleen argazki eta bideoak ere zintzilikatzen dira, beti ere gurasoei kurtso hasieran eskatutako baimenarekin.

Hala eta guztiz ere, ikasleek eskolaz kanpo erabili dituzten beste aplikazio, sare sozial eta mugikorrekin arazoak izan dira. Honen inguruan eta practicum-a hasi bezain pronto, zuzendariak, ikasle batek sare sozial batean bere erabiltzaile kontura norbaitek erabili eta beste ikasleengan komentario zakarrak egiteko erabili zituela adierazi zen. Ikasle horren ama zuzendariarengana joan eta laguntza eskatzera etorri zen ikastolara.


Hau horrela izanik, zuzendariak bilera batean egoera azaldu eta gai horren inguruan zerbait aztertu eta landu behar zela adostu zen. Errealitate horren aurrean nire burua laguntzeko prest aurkeztu eta beste irakasleekin batera, ikasleen IKT erabilera eta aplikazio digitalen araudiaren egoeraren azterketa gure helburu bilakatu zen. Horrek, animatu ninduen nire gradu amaierako lana gai honetaz egitea eta garatzea.

### 3.2. *Ikerketa kasuaren metodologia*

Aurkeztutako testuinguruan egin diren hasierako galderei erantzuna emateko eta lanaren helburuak betetzeko, ikastolako barne egitura, baliabideak eta IKT-en erabilera ondo eta sakontasunez ezagutzeko metodologia egoki bat aukeratu da. Horretarako, practicum egonaldia eta bertako profesionalen konfiantza eta lankidetzaren lagungarria izan dira.

Metodologiari dagokionez, kasu-azterketa metodologia izan da ikertzeko modurik egokiena. Kasu azterketa errealtateko egoera bat aztertzen duen ikerketa empirikoa eta eskuratutako datu objektiboetan oinarritzen delako, "*Bizitza errealtatean bere testuinguruaren barruan gaur egungo gertakari baten ikerketa empirikoa da*" (Yin, 2003 orr.13). Honetaz gain, beste arrazoi anitzak izan dira metodologia mota honen aukeraketako. Lehenik eta behin, sistema honen hezkuntza zientzietarako egokitasuna hainbat autorek aipatzen eta defendatzen dutelako, (Campbell 2003, Stake 1998, Yin, 2003), eta bertan aipatzen diren ezaugarriak gure kasuarekin bat zetozelako, adibidez: azterketa kasu berezi batean datza; ikerketaren helburua ez da emaitzen orokortasuna; testuinguru zehatz batetan (ikastola) gertatzen dena ulertu nahi da, parte hartzen duten guztien ikuspuntua ezagutzeko. Ideia honekin bat dator berezitasunaren ikerketa dela esanez eta ez orokortzearena; kasu berezi baten konplexutasuna aztertzen da bere baldintzetan ulertzeko. Hortaz, kasu azterketa erabili izanaren argudioak honela labur daitezke: 1- Azterketaren objektu den errealtatearen ikuspuntu desberdinak izatea bermatzen du; 2- Metodo baten ahuleziak besteen sendotasunekin konpentsatzeko aukera ematen du eta; 3- "Kasua" esaten dugunean, azterketa-unitate bat, edo gizabanakoa, erakunde bat, programa bat edota gertaera mugatu batera zehazten da. Hala ere "kasu-azterketa" gainerako ikerketa-metodoetatik bereizten duten ezaugarri batzuk ere aipatu nahi dira egin den aukeraketa argudiatzeko (Marcelo, 1991): 1- *Osotasuna*: kasu-azterketak osotasun holistikoak dira. 2- *Berezitasuna*: kasu-azterketak desberdintzen duten berezitasunak, idiosinkrasia eta zehaztapen lokalak dira. 3- *Errealtatea*: kasu-azterketa kontuan hartzen ditu errealtatearen arazoak, paradoxak, gatuzka-egoerak eta egiazko gertaerak. 4- *Parte-hartzea*: Kasuan parte hartzen duten kide guztiak jotzen ditugu parte hartzailetzat, baita ikertzailea bera ere; 5- *Isilekotasuna*: Azterketa-mota honek erakundeak eta pertsonak inplikatzeko dituen diskrezioz jokatu beharra dago partaideei inolako kalterik ez eragiteko.

Metodologia honetan egoera baten deskripzioa egiten da Van Dalen-ek eta Meyer-ek (1966) ulertzen duten modura, non errealitatea ezagutzeko eta datuak jasotzeko metodo kualitatiboak eta kuantitatiboak batera erabiltzeko aukera ematen du (Brewer eta Hunter, 1990; Cook eta Reichard, 1986). Bi metodo hauen arteko konbinaketa bakoitzak dituen ahuleziak gainditzeko erabiltzen da, modu honetan datu baliagarriagoak eta fidagarriagoak lortzen dira eta metodo bakar baten mugak gainditzen dira (Bericat, 1998). Hurrengo eskeman ikerketa kasu azterketaren aukeraketaren ibilbidea gezi beltza eta lodia jarraituz “→” ikus dezakegu.



1. Grafikoa. Ikerketa metodoen sailkapena diagrama. (Dendaluze, 2008 egokitua).

Horretarako, ikastolan IKTen ezarpena behatu da, honi buruzko dokumentazioa aztertu, bilerak egin eta eztabaida talde bat “focus group” gauzatu da. Honez gain, ikasle zein irakasleei galdeketa bat egin zaie, IKTen inguruan duten ikuspegia jakiteko, eta hala nola, IKTen inguruan dituzten erabilera ohiturak eta arriskuen pertzepzioa ezagutzeko.

## 4. Lanaren garapena

### 4.1. Kasu azterketaren lagina eta partaideak

Lan honen parte hartzaileak, batez ere, lehen hezkuntzako ikasleak eta irakasleak izan dira. Ikastolako orientatzaileak, IKT arduraduna, eta zuzendariak irakasleen talde berean sartu dira. Ikasleriari dagokionez, 45 ikasle, 27 ikasle 5. mailakoak eta 18 ikasle 6. mailakoak izan dira. Generoari erreparatuz nahiko orekatua izan dela esan dezakegu 20 (% 44,4) mutil eta 25 (% 55,6) neska izanik. Bestetik, 6 irakasleei erreparatuz, denak 5. eta 6 mailan irakasgaireren bat irakasten aritu direnak eta kasu honetan, 2 gizonezko eta 4 emakumek osatu dute helduen partaidetza.

### 4.2. Datu jasoketa eta datu azterketa edo analisisia

#### 4.2.1. Datu jasoketa

Datu jasoketa egiteko tresna ezberdinak erabili dira teknika kuantitatibo eta kualitatiboak erabiliz, uztartuz eta bat besteari osatuz. Likert eskalan oinarrituriko galdetegiak ikasleentzako eta irakasleentzako (kuantitatiboa) eta behaketa eta talde eztabaida edo “focus group-a” irakasleentzako (kualitatiboa).

Beraz, alde batetik ikasleentzako eta ikastolako irakasleentzako galdetegi bat prestatu da eragile guztiei galdera berberak galdetuz. Galdetegi honen diseinua eta helburua ikasleen IKTen erabilera eta arriskuen pertzepzioa jasotzea da. Honekin Voogt, Knezek, Cox, Knezek, eta Brummelhuis (2013) dioten bezala, IKTen onurak eta ikasketarako baliogarriak izateko baldintzak ezagutzeko aukera izango dugu. Baita ere Cabello-k (2013) aipatzen duen moduan, alderdi ezkorak edo desabantailak aztertzeke aukera. Horregatik galdetegiaren galderak Likert eskalaren eredua jarraitu da modu kuantitatibo batean aztertzeke aukera emanez. Galdetegi berean hainbat erabilpen desegokiak aipatzen direnean bi atal edo bloke nagusi hartzen dira kontuan: 1- erabilera eta 2- beraien arriskuen pertzepzio maila. Hau da, (1,2,3,4) eskala norberak duen erabilera baloratzeko eta (1,2,3) eskalaren arabera norberak duen arrisku pertzepzioa (baxua, ertaina edo altua) adierazteko. Modu honetan, ikasle eta irakasleen arteko iritzi eta ezberdintasunak topatzeko aukera zabaltzen da. Beste aldetik, “focus group” irakasleentzat prestatu egin da non, irakasleek modu askean hitz egiteko, galdera erdi-egituratuak (Wengraf, 2001) aurkezten dira. Batez ere, ikasleen erabileraz eta arriskutaz hausnartzeko.

#### 4.2.2. Datu azterketa eta analisisia

Datu ezberdinak jaso direnez, datuak aztertzekeo analisi mota ezberdinak erabili dira. Hau da, datu azterketa mistoa erabiliko da non datu kuantitatiboak ditugunean, zenbakiak eta eskalak, hauen sintesia modu ulergarrian aurkeztekeo programa eta trataera zehatz bat emango zaie, eta datu kualitatiboak direnean beste baliabide edo teknikak erabiliko dira datuen laburpena egitekeo eta aztertzekeo. Hona hemen bi azterketa horien zehaztapenak:

Datu kuantitatiboan analisisia: datu zenbakidunak Likert eskalan egindako galderetatik jaso dira. Bertako galderen erantzunak kontuan hartuz, Cronbacheko alpha 0.701, lortu da galdetegiaren fidagarritasuna ona dela bermatuz. Jasotako erantzunak estatistika analisiak egitekeo IBM SPSS 22. bertsiokeo programa erabili da. Espresuki, honelako analisi motak erabili dira informazioa murriztekeo eta esanguratsua izatekeo: frekuentzien distribuzioa, ehunekoak, bataz bestekoak eta Chi Karratu analisisia. Honekin batera, Microsoft Excell programa ere erabili da hainbat taula eta irudiak sortzekeo, izan ere, informazioa modu erraz eta ulergarriago batean aurkeztekeo aukera ematen duelako.

Datu kualitatiboan analisisia: Kasu honetan talde eztabaidako grabaketak eta testu moduan jaso dira eta informazioa laburtzekeo kategorizazioaren teknika erabili da. Honela, informazioa kategori ezberdinetan sailkatua izan da. Kategori hauek galdetegiaren atalak erabili dira ideie eta erreferentzie nagusiak grabaketatik jasotzekeo. Kategoriaz gain, kodifikazio teknika ere erabilia izan da eragile bakoitzaren iritziak jasotzekeo eta ahots bakoitzaren pribatutasuna mantentzekeo. Horretarako, ondorengo egitura jarraitu da:

Irakas+irakasle bakoitzaren zenbakia + grabaketaren denbora minutu eta segundoak, adibidez, (Irakas2 Recording 6'20'' - 6'49'').

## 5. Emaitzak

Emaitzak atal eta aukeratutako kategorietan antolatu dira, non galdetegian gaika antolatuak dauden galderak atal berberak jarraitu egin da. Honela, garrantzi gehiago dituzten datuak eta erantzunak modu argian eta ulerkorrago batean aurkeztea espero da.

### 5.1. Interneteko kontu pertsonalak eta komunikatzeko zerbitzuak

Hasteko, ikasleen erabilera aztertu da non beraiek erabiltzen dituzten hainbat zerbitzuz galdetu zaie. Lehenengo taulan hauen erabileraren maiztasuna eta zerbitzuak eskatzen duten gutxienerako adina agertzen da.

Internet zerbitzuak (N=45)	Gutxienerako adina (2016)	Galduek	Erabiltzen dut	Erabiltzen nuen	Ez dut erabiltzen
Hotmail	(18)	3	1	3	38
Gmail	<u>14 edo gehiago</u>	1	8	11	25
Yahoo mail	<u>13</u>	3	2	0	40
Facebook	<u>13</u>	2	1	4	38
Tuenti	<u>14</u>	2	1	4	38
Twitter	<u>13</u>	2	1	3	39
Habbo	<u>14</u>	4	1	1	39
Googleplus	<u>14 edo gehiago</u>	4	4	3	34
Whatsapp*	<u>13</u>	2	26	6	11
Line	<u>13</u>	3	3	7	32
Telegram	<u>13</u>	2	2	3	38
Viber	<u>13</u>	3	2	1	39
Instagram	<u>13</u>	2	13	5	25


Taula 1. L.H.ko ikasleen internet zerbitzuen erabilera eta gutxienerako adina

Taulan argi ikus daiteke, nola 12 urte baino gutxiagoko neska-mutilek interneteko hainbat zerbitzu erabiltzen dituzten, nahiz eta gutxienerako adina ez izan. Lehenengo postuan, gehiago erabiltzen duten aplikazioa, “Whatsapp”-a da, izan ere, 26 ikaslek (%60,47) erabiltzen dute, nahiz eta gutxienerako adina 13 urte izan. Bigarrena Instagram dugu 13 ikasleekin (%30,23) eta hirugarrena Gmail 8kin (%18,18).

Eraitza hauek ikusita, gehiago ikasleek whatsapp-a erabiltzen dute adin honetan. Beste komunikazio plataformak ere erabiltzen dituzte, adibidez, Instagram, Facebook, Tuenti and Twitter baina guzti hauek ikastolatik kanpo. Irakasleriaren “focus group-ean” edo talde eztabaidan plataforman hauek (Facebook, Twitter, Instagram...) ikastolan debekaturik daudela konfirmatu zen eta gainera, hauetako batzuk “blokeaturik” daude eskoletan, hezkuntza sail edo Eusko Jaurlaritzako sare kudeatzaileengatik.

Lehen Hezkuntzako Irakasleen internet zerbitzuen erabilerari erreparatu, ikus irudia.







Irudi 1: Irakasleen IKT erabilera eskolan eta ikastolatik kanpo.

Hortaz, egoera berezi batekin topo egin da: Adingabeko ikasle batzuk Interneteko zerbitzu batzuk (Facebook, Twitter, Tuenti, Whatsapp, Instagram edo Gmail) erabiltzen dituzte behar den adina izan gabe baina ikastolan irakasleek ez dituzte erabiltzen, ezta irakasten edo eta beraien erabilpena guztiz debekatuta dago.

Arrisku pertzepzioaren egoerari dagokionez, behar den adina izan gabe zerbitzu hauek erabiltzearen iritzia desberdina ikastolako eragileen artean. Hau da, ikasleen ikuspegitik, %23-k bakarrik arrisku altua dagoela uste da, %42a arrisku ertaina eta %35-a baxua dela aipatzen da. Ikus *irudi 1*.



Irudi 2 : Ikasle portzentajea arrisku pertzepzioan Interneteko zerbitzuak adina izan gabe erabiltzen dituztenean.



Irudi 3: Irakasle portzentajea arrisku pertzepzioan Interneteko zerbitzuak adina izan gabe erabiltzean

Aldiz, irakasleen kezka %40a arrisku altua eta % 60a ertainekoak direla esaten dute.

## 5.2. IKT-en erabilera etxean eta ikastolan

Datu kualitatiboen emaitzen arabera, irakasleria tresna eta baliabide ugari ari dira ikastolan erabiltzen. Esate baterako, irakasleak ordenagailu, proiektore, web orri, posta kontuak, LH bloga, “Txanela” proiektua, arbel digitala, CREA, AGREGA programa, CDak, bideoak, virtual box, Movie maker, “games to learning” web orria, ikasleen bazterrak bloga,

Symbaloo, Youtube eta googleleko drive erabiltzen dute ikasleekin lanean aritzeko. Espresuki irakasleen esanetan (focus group) modu honetan erabiltzen dute:

*“ bloga erabiltzen dugu ...eskola merezi duten ekintzak bestei eta gurasoei azaltzeko...” (Irakas2 Recording 6’20’’ - 6’49’’ )*

*“IKT asko erabiltzen ditugu..., informazioa bilatzeko, lanak egiteko, zuzenketak egiteko (virtual box, Agregá)... beraien ordenagailu txikitán erabili ditugu... wifi-a usten digun bitartean... hori da gure arazo nagusia... hala ere joaten gara beste ordenagailu gelara (finkoak) eta denbora... erabiltzen ditugu”(Irakas4 Recording 6’55’’-9’25’’ )*

*“ edukiak lantzeaz gain prozedurak ere lantzen dira, adibidez, informazioa antolatu behar dute, sortzen diren arazoei irtenbideak bilatzeko... (Irakas2 Recording 9’27’’-9’43’’)*

*“ faltak egiteko informazioa bilatzeko, nola tratatu informazioa, aurkeztu Power point edo, bideo batean... Movie Maker erabiliko degu edo...(Irakas4 Recording 9’59’’-10’14’’ )*

Hala ere, eskolan erabiltzen eta lantzen diren Internet zerbitzuak ez datoz bat ikasleek erabiltzen dituzten hainbat aplikazioekin. Gauza bera gertatzen zaie irakasleei 4. Irudian ikusten den bezala. Hau da, irakasle gehienek ere Facebook, Twitter, Whatsapp, Telegram edo Instagram erabiltzen dute baina ikastolatik kanpo. Honekin, argi isladatzen da aplikazio hauek ez direla ikastolan onartuak izan, eta ezta hezkuntzan erabiltzeko aukerarik zabaldu ere. Baina, honen harira hausnartzeko galdera honakoa litzateke: Norbait hezi edo kontrolatu beharko luke adingabekoen plataforma hauen erabilera? Gurasoen ardura bakarra al da? Hona hemen irakasleen iritziak galdera hauen inguruan:


*“... hemen erabiltzen ditugun aplikazio batzuk... (ikastolan) hitzegin dugu zeintzuk diren ez? baina hemendikan kanpo erabiltzen dituztenak ere... joe irekitzen dizkizute aukera batzuk... uff” ... .. Normalmente hortikan etortzen zaizkigu mobidak...hor ere hausnarketa bat egin behar dugu. Ez? (Irakas 5 Recording 33’50’’-34’16’’ )*

*“nik uste... egongo dira gelan erdia baino gehiago,... hemen ez dira gai googleen ... badakitelako hemen kontrol bat dagoela ..... eta seguro etxean gai direla eta ausartzen dira gauza pila egiteko gurasoek kontrolatzen ez dituztelako baina... baina hemen ez dira gai hori egiteko ... kontrol bat dagoela...(Irakas 3 Recording 34’15’’-34’56’’ )*

### **5.3. Adingabekoen interneteko zerbitzuak erabilera: jokabideak eta arriskuaren pertzepzioa**

Galdetegietan ikusten denez eta datu kuantitaiboen arabera, Interneteko zerbitzuaren erabileran ikasleek ez dituzte arauak beti jarraitzen eta beraien jokabidea ez da guztiz zuzena eta egokia. Hortaz, hainbat jokabide desegokien aurrean beraien ohiturak zeintzuk diren jakitea lortu nahi izan da. Bostgarren irudian, argi ikus daiteke, nola gehiago adingabekoen jokabidea nahiko ona dela. Baina, hala ere, badira hainbat kasu 12+1 (%28)


non *beste gauzetan aritu behar dutenenean (etxerako lanak...)* bideojokoetan aritzen direla. Beste kasuetan 11k (%24) *bideo jokoetan jolasten dute baimenik gabe* eta beste hainbeste, gurasoei esaten diotena baino denbora gehiago pasatzen direla IKTak erabiltzen onartzen dute.




Irudia 4: IKT-ko erabileraren eta jokabidearen ohiturak adingabekoetan

Nahiz eta, orokorrean, 31/45 (%70) erabilera egokia egin, badira arauak hausteko joera dituztenak. Esate baterako, 45etik 8-12 bitarte edo %20tik - %28ra arauak 3 egoera ezberdinetan ez dituztela jarraitzen onartzen ari direnean. Baina kasu kezagarriak ere badira 45etik bakarrik 1-3 bitarte badira ere, gutxi hauek askotan ez dituzte ezarritako arauak betetzen.

Honen harira, arau eta egoera horien arauak ez betetzearen arriskuez galdetu zitzaizen ikasleei eta gehienak 30-36 bitarte hau da, %80tik %95 egoera guztien arriskua baxua zela esaten zuten. Bakarrik 1-3 bitarte arrisku ertaina edo altua ikusten zuten. Iritzi eta arriskuen pertzepzioa guztiz desberdina da irakasleena, non gehienak arrisku altua dagoela pentsatzen dute ia egoera ezberdinetan. 6. eta 7. irudietan argi ikus daiteke.



Irudia 5: Ikasleen arrisku pertzepzioa IKT erabilera eta arauen haustearen aurrean



Irudia 6: Irakasleen arrisku pertzepzioa ikasleen IKT erabileraren eta arauen haustearen aurrean

Datu eta pertzepzio honen ezberdintasuna esanguratsua den ikusteko chi-karratua testa egin da. Ikus 1go. Taula.

Chi-Karratu froga	valor	gl	Sig. asintótica (bilateral)
	31,819 <sup>a</sup>	4	,000
N Kasuak	26,239	4	,000
	36		

Taula 1. Chi-Karratua arriskuaren Pertzepzioa Ikasle –irakasle ezberdintasunak Ikt erabileran


Chi Karratuak IKT erabileran ezberdintasun esanguratsuak daudela esaten digu. Ikasle – irakasleen arteko arriskuaren pertzepzioan. Taulan ikus dezakegunez  $p < 0.05$  baino gutxiagoa delako.

#### 5.4. Arau haustek eta baimenak

Arauekin jarraituz irakasleen iritziz gurasoek dute alor horretan ardura gehien eta adibide honetan jasotzen da ideia hori:


*“... eta zeintzuk diren arauak ez? Nik uste iristen direla 18 urterekin eta ez dakite zeintzuk diren arauak, zein ondorio dituzten, esan nahi det, egiten dute hau, hau eta hau... eta badaude ondorio penal batzuk oso fuerteak... non gurasoak dira arduradunak... eta hori ez dugu dominatzen ... (Irakas5 Recording 17’32’’-18’14’’ )*

Hala ere, eta gutxi batzuk badira ere, adingabekoek jarraitzen dute hainbat ekintza eta arauak hausten gurasoen baimenik gabe. Ikus irudia 9.




Irudia 7: Baimenik gabe ikasle kopuruen arau haustek

Ikusten denez, arau hausturen inguruan ohikoena musika eta pelikulak deskargatzea da (batzuk hau normaltzat hartzen dute), baina larritasun handiago hartzen duen gauza zera da: baimenik gabe interneteko zerbitzuak erabiltzeko gurasoen gakoak erabiltzea. Ondorengo irudietan, argi eta garbi, ikasleen kasuan gehiengoak arrisku baxuaren pertzepzioa dute eta irakasleen iritzietan arrisku altua nagusia dela ikus dezakegu.



Irudi 8: Ikasleen arrisku pertzepzioa eta arauak.



Irudia 9: Irakasle arrisku pertzepzioa eta arauak.


Ikasle eta irakasleen arteko arrisku pertzepzioaren ezberdintasuna esanguratsua dela ikusteko, chi-karratuaren testa egin da eta emandako emaitza “ $p < 0.05$ ” baino baxuago denez (0.000), alde hau esanguratsua dela esan dezakegu. Taula 2.

Chi-Karratu froga	valor	Gl	Sig. asintótica (bilateral)
	35,000 <sup>a</sup>	5	,000
N Kasuak	28,708	5	,000
	36		

Taula 2. Chi-Karratua arriskuaren Pertzepzioa Ikasle –irakasle ezberdintasunak Pribatutasuna eta informazioa


### 5.5. Interneteko eta norberako Pribatutasuna

Norberaren pribatutasuna aztertzea atal garrantzitsua da baina are gehiago 12 urte baino gutxiagoko haurrekin. 10. irudia begiratu orokorrean ondo mantentzen dute beraien informazio pertsonala, baina badira haur batzuen ekintza kezagarriak izan daitezkeenak.



Irudi 10. Norberaren datu pribatuen kudeaketa

Adibidez, 20 ikaslek (%45) pasahitzak oso errazak erabiltzen dituzte (beraien izen abizenak, jaiotze data, telefonoa...). Aipatzekoak diren beste bi arrisku: A) beraien gakoak gelakideei esatea da, non 5 haurrek (%11) onartu dute eta B) beste 4 ikaslek (9%) beraien informazio pertsonala interneteko hainbat zerbitzuetan igo eta ikusgai dute.



Irudi 11 ikasle pribatutasun arriskuaren pertzepzioa

Irudi 12 irakasle pribatutasun arriskuaren pertzepzioa

Ikasle-irakasle pribatutasun arriskuaren pertzepzioa 11 eta 12. irudietan aztertuz, ikasleen ikuspuntutik ez dute arriskurik edo oso baxua iruditzen zaie aurkeztutako 6 arau hausteetan eta ekintza desegokiaren aurrean. Aldiz, irakasle gehienak ekintza hauetatik 4 arriskueta, altua dela diote eta 2k arrisku ertaina dagoela esaten dute.

Pruebas de chi-cuadrado	Valor	Gl	Sig. asintótica (bilateral)
Chi- cuadrado de Pearson	34,000 <sup>a</sup>	6	,000
Razón de verosimilitudes	28,395	6	,000
N de casos válidos	34		

Taula 3. Chi-Karratua arriskuaren Pertzepzioa Ikasle –irakasle pribatutasun ezberdintasunak

Chi-karratuaren testa egin eta gero, ikasle eta irakasleen pribatutasun arriskuaren pertzepzioaren inguruan, desberdintasun esanguratsuak direla esaten du. Testak emandako emaitza 0.05. baino baxuago delako (0.000 ). Ikus 4. taula.

Ikasle eta irakasleen arteko ezberdintasun hauek bi adibideetan isladatzen dira, baita talde eztabaidan:


“...izan genuen gora behera bat... argazki bat ... zintzilikatu zuten ...non publikatu zuten argazki bat eta ... hor hasi ginen denok ... eta guraso asko gera ziren ....Nola???...Ba ... nire izenean ireki diot kontu bat ...ba pentsatuz... zer...oraindik guraso askok ez dakite guzti hau... zein errez irekitzen duten kontua (adinik gabe)... Irakas4 Recording 18’17’’-19’05’’ )

“...telefonoa beraien eskutan dagoenean egun osoan... es que... baimenak ez dira eskatzen... Ni badet esperientzia ...Nere alabarekin...berak ireki zuen lehenengo kontua nik enteratu gabe...beno baina berak ez zuen egin ezkutatzeko asmoarekin... berak ez zuen inolako garrantzirik eman, berak ba ... asko gustatzen zaio.... Eta berak esan zidan... de hecho berak erakutsi zidan begira! zer argazki jarri dudana!! ...baina... es que nahi duzun adina jartzen duzu 30 jartzen duzu eta onartzen

dizu. Ez du konprobatzeko modurik...datua eskatzen du baina zuk jarri dezakezu nahi duzuna... (Irakas1 Recording 20'50'' - 21'43'' )


**5.6. Haurren komunikatzeko moduak Interneteko zerbitzuetan eta hauen arriskuak**

Internetek komunikatzeko aukera berriak eta azkarragoak eskaintzen ditu baina egoera deserosoak, intromisioa, edo komentario desatseginak pairatzeko aukerak ere zabaltzen dira. Hortaz, honen azterketa egin da eta emaitzak diotenez jarrera nahiko egokiak izaten dute ikasleek komunikatzeko garaian. Hala ere, badira kasu batzuk aipatzekoak direnak. Esate baterako: 7 ikaslek (%16) norbaitekin bildu dira interneteko sareetan ezagutu eta gero. Beste adibide bat 6hurrek (%13,63) ezezagunen gonbidapenak onartu dituztela sarean onartzen dute eta 2k (4,5%) sareetan eta publikoki besteen ikaskideen inguruan gaizki hitz egin dutela onartu dute.



Irudi 13: Ikasleen erlazio mota sare sozialetan eta IKT erabileran

Interneten bidez komunikatzeko moduak eta ikasleen arriskuen pertzepzioei erreparatzen badiegu (irudi 13), kasurako, sare sozialen bitartez ezagututako pertsonekin biltzea, kideak mehatxatzea, publikoki gaizki esaka aritzea edo ezezagunen gonbidapenak onartzea, ikasleen %90ek arrisku baxuko ekintzak direla pentsatzen dute.



Irudi 14. Ikasleen IKT eta sare sozialen arriskuen pertzepzioa. Irudi 15. Irakasleen arrisku pertzepzioa ikasleek dituzten IKT eta sareen erabileran.


Iritzi desberdinak topatzen ditugu ikasle eta irakasleen artean, izan ere, Interneten bidez komunikatzeko moduak eta aipatutako ekintzaz galdetzerakoan, irakasleen gehiengo pertzepzioa, arrisku altukoak direla esaten dute (Irudi 15). Chi-karratuaren testa egiterakoan arrisku pertzepzio ezberdintasuna esanguratsua dela esaten du “ $p < 0.05$ ” baino baxuago (0.000) ateratzen delako. Ikus taula 5.

Pruebas de chi-cuadrado	Valor	Gl	Sig. asintótica (bilateral)
Chi- cuadrado de Pearson	36,000 <sup>a</sup>	5	,000
Razón de verosimilitudes	29,012	5	,000
N de casos válidos	36		

Taula 5. Chi-Karratua Ikasle –irakasle Pertzepzioa IKT eta sareen arriskuen ezberdintasunak

### 5.7. Publikatzeko eta informazioa igotzeko baimenak eta hauen arriskuen pertzepzioa.


Adingabekoek zein informazio igotzen eta publikatzen dutenaren azterketa eta honen arriskuaz galdetzean, emaitza hauek jaso dira. Irudi 19an ikusten den bezala, gurasoen baimenik gabe argazkiak eta bideoak (gutxietan) igotzea da 7 hurrek egiten duten ekintza, 2 hurrek ekintza bera askotan egiten dute eta beste 2k beti egiten dutela onartzen dute. Guztira %24,4 (11/45) baimenik gabe publikatu edo informazioa igo egin dute gurasoen baimenik gabe.




Irudi 16. Ikasleen publikatze eta informazioa internetera igotzeko baimenak.

Ekintza hauen arriskuen pertzepzioen inguruan eta 17 eta 18 irudietan aurkeztzen den moduan, argazkiak eta bideoak publikatzea eta igotzea gurasoen baimenik gabe, arrisku baxuko ekintza dela esaten dute adingabekoek. Guztiz kontrakoa da irakasleen pertzepzioa, izan ere arrisku altuko ekintzak dira horiek helduen esanetan.





Irudi 17: Ikasleen arrisku pertzepzioa publikatzerakoan.



Irudi 18: Irakasle arrisku pertzepzioa ikasleria publikatzen dutenarekiko

Chi-karratuak ikasle eta irakasleen arteko pertzepzio ezberdin honen aldea esanguratsua dela esaten digu. Test honen emaitzan “ $p < 0.05$ ” baino baxuagoa da (0.000). Ikus 6 taula.

Pruebas de chi-cuadrado	Valor	Gl	Sig. asintótica (bilateral)
Chi- cuadrado de Pearson	35,000 <sup>a</sup>	4	,000
Razón de verosimilitudes	28,708	4	,000
N de casos válidos	35		

Taula 6. Chi-Karratua ikasle-irakasle arrisku pertzepzioaren ezberdintasunak, ikasleak publikatzen dutenaren arabera.

Ezberdintasun hauek irakasleen hitzetan ere jasoak izan dira talde eztabaidan:

“...es que... beraiek (ikasleek) beraiek ez dute arriskua ikusten ... ez diegu (irakasleek) arriskua ikusten.. Irakas3 Recording 48’05’’-48’14’’ )

“...ez dute ikusten...arriskua... es que... zenbatek hitzegin dute beraiekin (seme-alabekin) zer arriskua dagoen ... es que gurasoek ere ez dakite....beraiek ere ...zer arriskua dagoen ...ez? . Irakas3 Recording 49’21’’-49’42’’ )

“ ni nahiko koldarra naiz....edo prudente... nik ere gauza guztiak ez dakizkit ... ireki nuen Facebookeko kontu bat orain dela ez dakit zenbat urte ...ibili nintzan pare bat aldiz... iruditu zitzaidan ez nintzea ...ez nintzela asko akkuratzen eta.... ez nintzen sentitzen eroso sentitu.. . horrelakoetan... eta gauza asko ez ditut erabiltzen ....ez dakidalako nola erabili behar ditudan. “... Irakas1 Recording 53’00’’-53’43’’ )

## 6. Ondorioak eta eztabaida.

Emaitzak aurkeztu eta hauek aztertu eta gero, ondorio orokor eta zehatz batzuk aipatuko ditut. Guzti hauek argudio eta azalpenekin batera doaz eta hauen laguntzaz gaiaren eztabaidarako eta hausnarketarako aukera zabaltzea espero da.

### **6.1. Ondorio orokorra**

Lehenik eta behin eta ondorio orokor gisa, bai irakasle bai ikasleen aldetik IKT-en erabilpena anitza da. Hortaz, hezkuntza eragile guztiek oinarrizko gaitasunak, aplikazioak eta tresneria erabiltzeko gai dira. Baina eskoletan erabiltzen diren programak eta plataformak ez dira ikasleek beraien artean erabiltzen dituztenak. Hau da, Vázquez eta Cabero-k (2015) aipatzen duten bezala eskolan zailtasun ugari topatzen ari dira ikasleek etxean erabiltzen dituzten aplikazioak ikastolan edo eskoletan erabiltzeko, batez ere sare sozialetaz hitzegiten dugunean. Honen ondorioz, adingabekoak sare hauetan beraien kabuz eta erabiltzeko heziketa formalik edo heldu baten laguntza edo eredurik gabe hasten dira erabiltzen. Horrek, arauak errazago ez betetzea, arrisku eta arazoak izateko edo erasoak pairatzeko aukera gehiago ematen ditu.

### **6.2. Ondorio zehatzak**

*6.2.1. IKT zerbitzuak eta bereziki sare sozialak eskatzen duten adina izan gabe (13-14 gehienetan), 10-12 urteko gehiengo haurrek erabiltzen dituzte eta arauak ez betetzea normaltzat hartzen da.*

Badirudi nahiko hedaturik dagoela adingabekoen eta 13 urte baino gutxiagoko haurrek interneteko kontu eta aplikazioetan erabiltzaile izatea. Baina aplikazio hauek eskatzen duten adina ez betetzea normaltzat hartu behar al dugu?

Zergatik eskatzen dute 13 urte aplikazioetan edo 14 urteko adina legean (LOPD), gero ez badu inork betearazten edo honen kontrolik izaten?

Bai estatuek, bai enpresek (Facebook, Instagram, twitter...), gurasoek eta adingabekoek paso egin eta ezarritako araua ez dute betetzen, ezta kontrolatzen. Zergatik? Zer dago gaizki? Gizarteak ez dituelako interneteko arauak errespetatzen eta gizarteak gaizki jokatzeko du edo legea gaizki ipinita dago?.

Hezitzaileok honen inguruan hausnarketa bat egitea ondo legoke, alde batetik, aplikazio hauen araudiak eta baldintzak hobeto ezagutu eta jakin beharko genituzkeelako eta behin hau ondo menperatu eta gero, haurrei sare eta aplikazioen arriskuaz eta erabilera desegokien ondorioaz hitz egin, irakatsi eta hezi behar ditugulako. Bestela, adingabekoak sarean arauak ez betetzea normaltzat hartzen ari dira.

Ondorioz, eta Durkheim-ek (1960) dioen bezala “anomie” edo anomia egoera batean egon gaitzke, non araudia ez betetzearen eta honen kontrol eza, normaltzat hartu dezakete haurrek, beraien jarrera indibidualean gaizki jokatzeko (Mestrovic eta Brown, 1985). Hau da, gehiengo haurrek interneteko aplikazio eta sare hauek erabiltzen badituzte nahiz eta bete behar diren baldintzak ez bete, baina inork ez badie horren aurka ezer esaten, ontzat hartzeko

arriskua dago. Egoera honi Altuna et al. (2015) dioten bezala, “anomia digitala” deituko genioke, gaur egun gero eta gehiago arau hauste, erabilpen desegoki eta arazoren bat pairatzeko aukerak izaten.

*6.2.2. Haurren arrisku pertzepzioa eta irakasleena guztiz desberdina da eta hauen aldea ez da erraz murriztuko.*

Ikasle gehiengoan iritzitan interneten eta sare sozialetan egiten dituzten hainbat ekintza desegoki edo arau hausteen aurrean ez dute arriskurik sumatzen. Adibidez arrisku baxuko gauza honako hauek iruditzen zaizkie: - Gurasoen baimenik gabe argazki edo bideoak igotzea, lagunengandik argazkiak eta bideoak baimenik gabe igotzea, kideen arteko jazarpenak edo erasoak publikatzea, erabiltzaile izateko adina ez izatea.... non gehiago irakasleen aldetik ekintza guzti hauek arrisku altuko gauzak baitira. Beraz, alde, eten, “gap” edo bi iritzien arteko distantzia izugarria dagoela ikusita, zerbait adierazgarri eta irakurketa bikoitza egiteko aukera ematen digu. Alde batetik, adingabekoen helduek baino arrisku eta hauen ondorioak urrutiago ikusten dituztela, eta horren ondorioz, arazoak izateko edo espero ez diren ondorioak pairatzeko aukera gehiago izango dituztela. Baina beste aldetik, helduen kezka altua adierazten dutenean, askotan ez dira sare sozial edo/eta interneteko arrisku horien inguruan ikasleei hezteko gai ikusten, eta Padilla et al. (2015) aipatzen duten bezala, haurrek gai horietaz gehiago dakite guraso edo irakasleria baino. Hauxe bera argudiatu dute irakasleek focus grupetako eztabaidaan. Beraz, egoera nahiko korapilatsua iruditzen arren, helduen eta adingabekoen iritzien eta elkarlanaren beharra hautematen da. Aguilar eta Leiva (2012) dioten bezala familien parte hartzea eta inplikazioa eskolan eta IKTeen hezkuntzan ezinbestekoa da. Gaztetxoek zer, non eta nola aritzen diren aplikazio horien helduei esanez eta gardentasunez jokatzeko hezkuntza eragile nagusien helburu bat izan beharko litzateke. Beste aldetik, helduek aplikazio hauen berri izan, arriskuaz informatu eta beraien eskarmentuaz baliatuz, arduraz jokatzeko hezi eta irakatsi behar diete haurrei. Prozesu honetan guraso, irakasle eta ikasleen lankidetzaren eta elkarlana behar-beharrezkoa aurrekikusten da batez ere interneteko arriskuei aurre egiteko eta erabilera egoki baten eredu bat izateko eta ikasteko. Modu honetan, emaitzetan ikasle eta irakasleen artean topatutako arrisku pertzepzio aldea izugarria zerbait murriztea espero da.

*6.2.3. Erabilera ikastolan eta etxean guztiz desberdina da, non haurren ekintza desegokiaren arazo gehienak ikastolatik kanpo gertatzen dira aplikazio digitaletan eta sare sozialetan, baina ikasle eta familiek arazoaren konponketarako eskolaren laguntza eskatzen dute.*

Irakasleak IKTak hezkuntzarako ikastolan erabiltzen dituzte eta horien erabilera ikasteko helburu eta modu kontrolatuan egiten da. Adibidez, web orriak, blogak, programak, edukiak ikasteko eta aurkezteko edo proiektuekin lan egiteko erabiltzen dituzte. Haurrek pairatzen ari

diran hainbat eraso eta arazo, beste aplikazio batzuetan izaten dira eta ikastolatik kanpo gertatu arren, debekaturik daudelako, “boomerang” bat izango balitz bezala itzultzen dira ikastolara ikasleek eta familieek, arazoaren konponbidea bilatzeko asmoz. Agian honen arrazoa Sureda, Comas eta Morey-en (2010) arrazoietan topatzen ditugu, non gurasoek ez dituzte seme-alabei interneterako mugarik edo murrizketarik inposatzen eta gero arazoa datorrenean ez dakite zer egin. Hortaz, etxean ez bada lantzen ez al da hobe eskolan bertan gai horietaz aldeztu aurretik, informatzea, heztea edo lanean aritzea?

Egia da, azken hamarkadan ikastolek eta eskolek milaka gauza, ekintza eta ardurak hartzen ari direla, baina, aldi berean eta curriculumean gaitasun digitala landu beharra dago eta lekutzaren bat gorde dezakegu gauza hauetaz aritzeko. Eremu honetan gurasoak eta familiak askotan erabat galduta sentitu eta laguntza eske etortzen dira ikastolara eta ez dira prestatu sentitzen arazo hauei aurre egiteko. Beraz, curriculum-ean txertatuta egonez gero, eraginkorrago lan prebentzioa gisa arazo dezente saihesteko aukera emango zuen. Hau da, inklusio digitalaren eskakizun zuzena litzateke. Hala ere, ez da samurra izango honen inguruan ikastola batek martxan jartzeko, hezteko edo irakasteko edozein ekintza, baldin eta web orri horiek (sareak, aplikazioak, telefono mugikorrak...) debekaturik edo blokeaturik dauden hezkuntza zerbitzutik edo ikastolatik. Hortaz, gai hauen inguruan espazioak eta denborak bilatuz eta landuz gero, prestatuagoak eta arduratsuagoak izango dira ikasleen jokabideak.

*6.2.4. Oraindik adin hauetan ez dira jarrera desegoki ugari topatu ikastolan baina permisibitate altua da iraskaleriaren iritzitan.*

Orokorrean, nahiz eta gutxieneko adina ez izan, IKT eta aplikazio hauetan ez dira ekintza arriskutsu ugarietan sartzen. Hala ere, gehiago kezkatzeko gauza da irakasleen esanetan, beraien etxean duten kontrol eza, arriskuen pertzepzio baxua eta ondorioen kontzientzi urria. Aldagai horiek kontuan hartuz nerabegarorako arriskuak gora egingo dutela espero da arrazoi hauengatik: arau hausteen goraka egon daitekeelako, arriskuen kontzientzia gutxi eta permisibitate altuaren balditzek emango direlako. Guzti hau Caldevilla (2010) jasotako datuekin bat datoz, autoreak kontzientzia gutxi eta permisibitatearen arteko lotura eta erlazio zuzena dagoela diolako. Ondorioz hezkuntza eragile guztiek arduraren bat izango beharko dute aplikazio hauen erabileraz, kudeaketaz permisibitateaz eta aplikazio hauen arau betetzeaz. Argi eta garbi dago enpresa edo sare sozialen arduradunak zerbait gehiago egiteko ardura hartu beharko dutela beraiek dituzten adinaren arauak bete arazteko eta kontrolatzeko.

## **7. Lan ikerketaren mugak**

Lan honek baditu muga batzuk eta aipatzea garrantzitsua iruditzen zait. Hasteko, emaitzak ikastolako barne eragileen iritzietan oinarrituta daude beraz gurasoen iritzia jasotzeko aukera izango bagenu informazioa aberatsagoa izango litzateke. Gainera, lagina ere ez da oso

handia eta ezin dira datuak orokortu. Nahiz eta 5. eta 6. mailako ikasle guztien partaidetza eta bertan lan egiten duten gehiengo irakasleen iritziak jaso, lortu diren emaitzak eta ondorioak ezin ditugu orokortu edo beste eskoletan emaitza eta ondorio berdinak izango ditugula bermatu. Hala ere, errealitate honen argazki eta hausnarketarako erabilgarria izan daitekeen datuak dira, adibidez: zer eta nola erabiltzen dituzten adingabeok hainbat interneteko aplikazioak, hauen araudiak, arriskuen pertzepzioa eta jokabideak.

## 8. Eskerrak

Gradu amaierako lan hau gauzatzeko kide izan ditudan lagun batzuei eskerrak eman nahi dizkiet. Lehenik eta behin Amassorraingo irakasle, tutore, zuzendari eta ikasleei beti prest izan dira partaidetza eta lankidetzarako. Nere tutore izan den Zuriñe Gaintzari, bere pazientzia, gertutasuna eta emandako iradokizunengatik. Bukatzeko gertu izan ditudan hainbat lankide eta familiakoei.

## 9. Erreferentzia Bibliografiakoak

- Adu, K.S., Arthur, J.K. eta Yeboah, C. (2013). Challenges and opportunities for the implementation of social network technologies (SNTs) in Teaching in universities in Ghana. *International Journal of Computer Sciences Issues*, 10(5), 268-275.
- Aguilar, M.C. eta Leiva, J.J. (2012). La participación de las familias en las escuelas TIC: análisis y reflexiones educativas. *Pixel-Bit. Revista Medios y Educación*, 40, 7-19.
- Aguilar, B. S., Serrano, R. M., García, M. D. L. Á. O. eta Alfaya, E. G. (2016). Procesos de socialización con redes sociales en la adolescencia/Socialization processes with social networks in adolescence. *Revista Latinoamericana de Tecnología Educativa-RELATEC*, 15(3), 155-167.
- Altuna, J., Lareki, A.; Martínez de Morentin, J.I. eta Amenabar, N. (2015). El riesgo de la anomia digital y su responsabilidad educativa en menores. *Jornadas de tecnología educativa*. 2017-06-03an hartua, hemendik:  
[http://eventos.unex.es/event\\_detail/1738/sections/2039/comunicaciones.html](http://eventos.unex.es/event_detail/1738/sections/2039/comunicaciones.html)
- Araujo, J.C. (2014). El uso de blogs, wikis y redes sociales en la enseñanza de lenguas. *EduTec. Revista electrónica de tecnología educativa*. 49, 1-27.
- AGPD (2008). Derechos de niños y niñas - Deberes de padres y madres: Guía de recomendaciones. Agencia Española de Protección de Datos. 2017-06-03an hartua, hemendik:[https://www.agpd.es/portalwebAGPD/canaldocumentacion/publicaciones/comon/pdfs/RECOMEND\\_MEN\\_MAY\\_eng.pdf](https://www.agpd.es/portalwebAGPD/canaldocumentacion/publicaciones/comon/pdfs/RECOMEND_MEN_MAY_eng.pdf)
- Baron, N. (2008). *Always on: Language in an online and mobile world*. Oxford, England: Oxford University Press.
- Bericat, E. (1998). *La integración de los métodos cuantitativo y cualitativo en la investigación social: Significado y medida*. Barcelona: Ariel.
- Bott, E. eta Spillius, E. B. (Eds.). (2014). *Family and social network: Roles, norms and external relationships in ordinary urban families*. New York: Routledge.
- Brewer, J. eta Hunter, A. (1990). *Multimethod Research*. California: SAGE Publications.

- Buckingham, D. (2007). *Beyond Technology: Children's Learning in the Age of Digital Culture*. Malden, MA: Polity. Buckingham, David, ed. 2008. *Youth, Identity, and Digital Media*. Cambridge, MA: MIT Press. [www.eukidsonline.net](http://www.eukidsonline.net).
- Cabello, P. (2013). A qualitative approach to the use of ICTs and its risks among socially disadvantaged early adolescents and adolescents in Madrid. *Communications-The European Journal of Communication Research*, 38(1), 61-83.
- Cabero, J. eta Córdoba, M. (2009). Inclusión educativa: inclusión digital. *Revista de educación inclusiva*, 1(2), 61-77
- Cabero, J. eta Marín, V. (2014). Posibilidades educativas de las redes sociales y el trabajo en grupo. Percepciones de los alumnos universitarios. *Comunicar. Revista Científica de comunicación*, 42 (XXI), 165-172. doi: <http://dx.doi.org/10.3916/C42-2014-16>
- Campbell, R. (2003). Preparing the Next Generation of Scientists: The Social Process of Managing Students. *Social Studies of Science* 33(6), 897-927.
- Chandrashekhar, A. M., Muktha, G. S., & Anjana, D. K. (2016). Cyberstalking and Cyberbullying: Effects and prevention measures. *Imperial Journal of Interdisciplinary Research*, 2(3), 95-102.
- Cook, T. D. eta Reichard, Ch. S. (1986). *Métodos cuantitativos y cualitativos de Investigación educativa*. Madrid: Morata.
- Dendaluze, I. (2008). Metodologías de la investigación en Ciencias Sociales: Diez Palabras Clave. En F. Etxeberria, L. Sarasola, J.F. Lukas, J. Etxeberria, eta A. Martxueta, (Coor.). *Convivencia, equidad, calidad*. San Sebastián: Erein.
- Duncan, S. H. (2008). MySpace Is Also Their Space: Ideas for Keeping Children Safe from Sexual Predators on Social--Networking Sites. *Heinonline Kentucky Law Journal*, 96, 527-731.
- Durkheim, E. (1951). *Suicide: a study in sociology [1897]*. Translated by JA Spaulding and G. Simpson (Glencoe, Illinois: The Free Press, 1951).
- Durkheim, E. (1960). On Anomie. In Mills, C. Wright, ed.: *Images of Man: The Classic Tradition in Sociological Thinking*. New York, Braziller.
- Garaigordobil, M. (2015). Cyberbullying en adolescentes y jóvenes del País Vasco: Cambios con la edad. *Anales de psicología*, 31(3), 1069-1076.
- García-Piña, C. A. (2008). Riesgos del uso de internet por niños y adolescentes. Estrategias de seguridad. *Acta Pediátrica de México*, 29(5), 272-278.
- Gómez, D. (2015). Ventajas y desventajas de las TIC en la enseñanza. *Revista Científica y Tecnológica UPSE*, 2(2), 1-12.
- Guerrero, G. (2015). Aprendizaje y TIC en el siglo XXI/Learning and ICT in the 21st Century. *Revista Internacional de Ciencias Humanas*, 4(1), 73-85.
- Harrison, B., Svetieva, E. eta Vishwanath, A. (2016). Individual processing of phishing emails: How attention and elaboration protect against phishing. *Online Information Review*, 40(2), 265-281.
- Ito, M., Baumer, S., Bittanti, M., Cody, R., Stephenson, B. H., Horst, H. A. eta Perkel, D. (2009). *Hanging out, messing around, and geeking out: Kids living and learning with new media*. MIT press.

- Ito, M., Okabe, D., eta Matsuda, M. (Eds.). (2006). *Personal, Portable, Pedestrian Mobile Phones in Japanese Life*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Lareki, A., Martinez de Morentin, J. I., Altuna, J. eta Amenabar, N. (2017). Teenagers' perception of risk behaviors regarding digital technologies. *Computers in Human Behavior*, 68, 395-402.
- Ling, R. (2004). *The mobile connection: The cell phone's impact on society*. San Francisco: Morgan Kaufmann Elsevier.
- Livingstone, S. (2008). Taking Risky Opportunities in Youthful Content Creation: Teenagers' Use of Social Networking Sites for Intimacy, Privacy, and Self-Expression. *New Media & Society* 10(3), 393-411.
- Livingstone, S. (2009). *Children and the Internet: Great Expectations, Challenging Realities*. Cambridge: Polity Press.
- Livingstone, S., Haddon, L., Görzig, A. eta Ólafsson, K. (2010). Risks and safety on the internet. *The perspective of European children. Final findings from the EU Kids Online survey of*, 9-16. 2017-06-03an hartua, hemendik: [http://www.lse.ac.uk/media@lse/research/EUKidsOnline/EU%20Kids%20II%20\(2009-11\)/National%20reports/UKReport.pdf](http://www.lse.ac.uk/media@lse/research/EUKidsOnline/EU%20Kids%20II%20(2009-11)/National%20reports/UKReport.pdf)
- Livingstone, S., Mascheroni, G. eta Staksrud, E. (2017). European research on children's internet use: Assessing the past and anticipating the future. *New Media & Society*. First published date: January-10-2017. 2017-06-03an hartua, hemendik: <http://journals.sagepub.com/doi/10.1177/1461444816685930#articleCitationDownloadContainer>
- Marcelo, C. (1991). El Estudio de Caso: Una estrategia para la formación del Profesorado y al Investigación Didáctica. En Marcelo, C., Parrilla, A., Mignorance, P., Estebaranz, A., Sánchez, M.V. y Llinares, S.(Eds.) *Pensamiento de profesores y Desarrollo Profesional I. Conocimiento y temas implícitos*. Sevilla: Universidad de Sevilla.
- Mestrovic, S. G. eta Brown, H. M. (1985). Durkheim's concept of anomie as dereglement. *Social Problems*, 33(2), 81-99.
- Padilla, S., Rodríguez , E., Álvarez , M., Torres , A., Suárez, A., eta Rodrigo, M.J.(2015). The influence of the family educational scenario on internet use of primary and secondary school children. *Infancia y Aprendizaje*, 38(2), 402-434.
- Papsdorf, C. (2015). How the Internet automates communication. *Information, Communication & Society*, 18 (9), 1-15.
- Prensky, M. (2010). *Teaching Digital Natives: Partnering for Real Learning*. New York: Corwin.
- Rodrigo, M. J., eta González, J. P. (2014). *Familia y desarrollo humano*. Madrid: Alianza editorial.
- Roldán, M. (2008). Familia y escuela como agentes de socialización. En López M. T. (coord.). *Familia, escuela y sociedad. Responsabilidades compartidas en la educación*. Madrid. España, Ediciones Cinca.
- Seaman, J. eta Tinti, H. (2013). *Social media for teaching and learning*. Boston, EUA: Pearson.

- Stake, R. E. (1998). *Investigación con estudio de casos*. Madrid: Ediciones Morata.
- Strassberg, D. S., McKinnon, R. K., Sustaíta, M. A., & Rullo, J. (2013). Sexting by high school students: An exploratory and descriptive study. *Archives of Sexual behavior*, 42(1), 15-21.
- Sureda, J., Comas, R., eta Morey, M. (2010). Menores y acceso a internet en el hogar: las normas familiares. *Comunicar*, 17(34), 135-143.
- Teja, G. (2014). *El ciberbullying en las aulas de primaria*. Trabajo Fin de Grado. Universidad de Cantabria. 2017-07-07an hartua, hemendik:  
<https://repositorio.unican.es/xmlui/bitstream/handle/10902/5058/TejaSolanaGuillermo.pdf>
- Van Dalen, D. B. eta Meyer, W. J. (1966). *Understanding educational research: An introduction*. New York: McGraw-Hill.
- Vázquez, E. (2008). Organizar y dirigir centros educativos con el apoyo de las Tecnologías de la Información y de la Comunicación. *Enseñanza & Teaching: Revista interuniversitaria de didáctica*, 26, 59-79.
- Vázquez, A.I. eta Cabero, J. (2015). Las redes sociales aplicadas a la formación. *Revista Complutense de Educación*, 26, 253-252. 2017-06-03an hartua, hemendik: doi:  
[http://dx.doi.org/10.5209/rev\\_RCED.2015.v26.47078](http://dx.doi.org/10.5209/rev_RCED.2015.v26.47078)
- Vera, J. (2005). Medios de comunicación y socialización juvenil. *Revista de estudios de juventud*, 68, 19-32.
- Viñao, A. (1997). *Las instituciones y culturas escolares en su perspectiva socio-histórica: Tradiciones y cambios. Sociología de las instituciones de educación secundaria*. Barcelona: ICE Universidad de Barcelona/Horsori.
- Voogt, J., Knezek, G., Cox, M., Knezek, D., eta ten Brummelhuis, A. (2013). Under which conditions does ICT have a positive effect on teaching and learning? A Call to Action. *Journal of computer assisted learning*, 29(1), 4-14.
- Wengraf, T. (2001). *Qualitative research interviewing: biographic narrative and semi-structured method*. London: Sage
- Whittle, H., Hamilton-Giachritsis, C., Beech, A. eta Collings, G. (2013). A review of online grooming: Characteristics and concerns. *Aggression and violent behavior*, 18(1), 62-70.
- Yin, R. K. (2003). *Design and methods. Case study research*. London: Sage Publications.
- Zickuhr, K. (2014). Teens and Tech: What the Research Says. *Young Adult Library Services*, 12(2), 33.



## ERANSKINAK

I. Eranskina. Galdera-sorta.....	34
II. Eranskina. Eztabaida taldea (Focus group).....	37
III. Eranskina. Baimen informatua.....	38

## ERANSKIN I : galdera-sorta

### GRAL-erako galdera-sorta: IKT–ei buruzko hezkuntza azterketa

Ikastetxea: AMASSORRAIN

Irakaslea irakasten ari den zikloa eta maila: \_\_\_\_\_

Generoa:  Gizona  Emakumea

Ondorengo galdera-sorta hau guztiz anonimoa da. Bertatik lortutako datuak ikerketarako erabiliko dira soilik eta 1999/XII/13ko Datuen Babeserako Legearen arabera erabiliko dira. Eskerrik asko zuen laguntzarengatik.

Itaun-sorta anonimoa denez, erantzunetan zuen zintzotasuna bilatzen da.

#### Erantzun mesedez ondorengo galdera-sorta.

1. Jarraian ekintza batzuk aurkezten dira. Adierazi hauetariko bakoitzak X batez ekintza hauek baxuak, ertainak edota altuak iruditzen zaizkizun ikasle batek egiten dituztenean.

Ikasleak...	Etxean →	Larritasun maila		
	Ikastolan →	Baxua	Ertaina	Altua
Bideo jokoetan jolasten dutenean baimenik gabe.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Beste gauza batzuetan aritu behar dutenean (etxerako lanak...) bideo jokoetan jolasten dute.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Eskola orduetan telefono mugikorra erabiltzen dutenean.	I	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Egunean bi ordu edo gehiagoz egoten direnean sare sozial batean (Tuenti, Twitter,...).	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Gurasoek uste dutena baino denbora gehiago pasatzen dutenean bideo jokoetan jolasten (kontsola, mugikorra...).	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Bideo jolasen inguruan etxean dauden arauak haustera animatzen dituztenean anai-arrebak.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Lagun edo anai-arrebei laguntzen ditenean gurasoen baimenik gabe aplikazioak erabiltzen (Facebook, Tuenti,	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Whatsapp, Instagram...).				
Ikasleen adinerako desegokiak diren edukietan sartzen direnean (helduentzako jolasak, helduen orrialdeak, ...).	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Internetetik pelikulak deskargatzen dituztenean.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Internetetik lanak kopiatzen dituztenean egilea adierazi gabe.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ordaintzen diren aplikazio edo programak jaisten dituztenean Internetetik, gurasoen baimenik gabe.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Etxean →	E	Larritasun maila		
Ikastolan →	I	Baxua	Ertaina	Altua
Gurasoen pasahitzak erabiltzen dituztenean Internetera baimenik gabe sartzeko.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Baimenik gabe heldu baten kontua edota pasahitza erabiliz erosketak burutzen dituztenean Interneten..	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Kontu bat sortzen dutenean beraien ez den izen batekin egiten dutenean.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Sare sozialetan erabiltzen dituztenean pasahitzak beste pertsona batzuei ematen dizkiete.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Pasahitza oso errazak erabiltzen dituztenean (izena, jaiotze data, ...)	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Beraien profilean informazio pribatua erakusten dutenean.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Sare sozialetan beste kide bat izango banintz bezala egiten dutenean. (Beste erabiltzaile ordez )	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Kontu bat sortzen dutenean, eta beraien benetako adina esaten ez dutenean	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ezezagunen laguntasun gonbidapenak onartzen dituztenean.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Sare sozialetan publikoki kide bati buruz gaizki esaka aritzen direnean.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ikaskideak mehatxatzen dituztenean sare sozialetan.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Sare sozialen bitartez ezagutzen dituzten pertsonekin kalean gelditzen direnean.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Beraien gurasoen baimenik gabe argazki edo bideoak sare sozialetara igotzen dituztenean	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Sare sozialetan beste ikasle edo lagunen argazki eta bideoak argitaratzen dituztenean beraien (guraso) baimenik gabe.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Txat-etan (Whatsapp, Telegram, ) lagunen argazki eta bideoak argitaratzen dituztenean beraien (guraso) baimenik gabe.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Beraien ikaskideen argazkiak konprometituak igotzen (sare sozial, blog, txat... ) dituztenean, beraiak jakin gabe.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Kideen arteko jazarpena/erasoari mesede egiten dioten argazki edo komentarioak argitaratzen ditut.	E	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ikastolan beraien adinentzat egokiak ez diren edukiak edo bideoak ikusten dituztenean. (baimenik gabe)	I	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

2. Adierazi ezazu mesedez X batez ondorengo zerbitzuak inoiz erabili dituzun edota gaur egun erabiltzen dituzun. ( Irakasleak)

Nire kontuak				
	Ikastolan (gelan) erabiltzen dut	Ikastolan Erabili izan dut	Ikastolatik kanpo erabiltzen dut	Ez dut erabili
Hotmail, Gmail, Yahoo, Google drive	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Facebook. Tuenti, Twiter, Instagram ...	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Whatsapp, Viber, Line,Telegram	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ordenagailu+proiektorea, arbel digitala	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Protatilak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Bloga	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Irakasgaiarekin bat datozen aplikazioak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Irakasgaiarekin bat datozen estekak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ikasleek parte hartzeko proiektuak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Bestalako web-ak edo IKT-ak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

## ERANSKIN II: Eztabaida taldea

### Eztabaida taldean (Focus Group) proposatzen diren galdera eta gaiak.

1. Aurreko taularen lehen zutabeari erreparatuz, (gelan erabiltzen dituzun IKTak),  
Zein helburu, funtzio betetzen dute eta zertarako erabiltzen dituzue zerbitzu edo gailu bakoitzak? (Focus group)
2. IKT-en erabilpena eta hauen presentzia hezkuntzan eta ikastolan beharrezkoa dela iruditzen zaizue? (Focus group)
3. IKT-en Gehiegizko erabilera egiten dute ikasleek eskolatik kanpo? (Focus group)
4. Zer irakatsi behar diegu ikasleei IKT-en inguruan (erabilpenean)? (Focus group)
5. IKT-en alde on eta txarrak zeintzuk dira zure ustez?

**ERANSKIN III: Baimen Informatuaren Orria**

**Datuen bilketa eta trataera Magisteritza Eskolako Atzerriko Hizkuntzako Gradu**

**Amaieraren Lana burutzeko jasotzen dira**

Euskal Herri Unibertsitateko Magisteritza Eskolatik (UPV/EHU), Jon Altunak, Zuriñe Gaintza Jauregiren zuzendaritzapean, IKT-ak (Informaziozko eta Komunikaziozko Teknologia) eta sare sozialak ikaskuntza eta hezkuntza LH-en tresnen erabilera aztertu eta ikertzen ari da, eta hau aurrera eramanez ahal izateko, Amassorrain Ikastolan oinarritu da.

Ikerketa honek duen xedea IKT-ak nola erabiltzen dituzten ikasleak eta beraien ekintzen balorazioa eta larritasuna aztertzea da. Bide batez irakasle eta gurasoei ere azaldu nahi zaie ikasleek egiten duten erabilera eta iritzia aurkeztea, beraien benetako egoera zein den jakiteko eta eremu horretan zein erabaki eta ardura hartu behar duten hausnartzeko. Horretarako, datuen bilketa eta trataera Amassorrain Ikastolan egingo da, izan ere, zentro honetan teknologia eta honen erabiltzaile adituak hainbat irakasgai eta ekintza ezberdinetan erabiltzen dituzte. Hala ere, ikasleak ikastetxetik kanpo egiten duen erabilpena guztiz ezezaguna denez, ikertzaileak interneten komunikaziozko tresna hauen erabilera arduratsua den edo ez aztertu nahi du LH-ko 5. eta 6. mailan. Hortaz, galdetegi bat pasako zaie beraien erantzunak gertutik jasotzeko. Datuak aztertu eta gero, irakasleen iritzia garrantzi handikoa denez, irakasleei beste galdetegi bat erantzutea eskatuko zaie ere. Ikerketan jasotako emaitzekin, ikertzaileak jakin ahal izango du ea zein erabilera egiten den eta zein arrisku eta ekintza hezitzaile hartu behar diren kontuan.

Datuen bilketa, galdera itxiz osatutako galdetegiarekin egingo da klase orduetan. Datuak, beraz, bilduko dira hauen analisia egiteko. Gero ikastolako arduradunei datuen emaitzak txosten batean itzuliko zaizkie. Ikerketak ikaslearen eta irakasleen anonimata errespetatuko du, hau dela eta, ez zaie identifika ditzakeen informazio pertsonalik eskatuko. Datuak UPV/EHUren fitxategian gordeko dira eta proiektuaren helburuetarako bakarrik erabiliko dira.

Honekin, ikerketa burutzeko ikastolaren baimena eskatzen da, bai ikasle bai irakasleek parte hartzeko aukera emanez eta baimena eskatuz. Parte hartu nahi duten seinale, bertan planteatutako ikerketa proiekturako galdetegia erantzun dezan, mesedez baimen orria sinatu. Ikerketaren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, ikertzailearengana zuzentzea besterik ez duzu:

ALDEZ AURRETIK ESKER MILA ZURE LAGUNTZAGATIK

Ikasle, irakasle edo gurasoaren izen eta abizenak:

Sinadura:

Lekua eta data:.....n,

**Ikertzailea:**

Jon Altuna Urdin

jon.altuna@ehu.eus